

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

## ZUZENKETA TEKNIKOA

EH Bildu udal taldeak Udal jabari publikoa erabiltzeari eta ustiapen bereziari dagozkien tasen araua aldatzeko proposamenari ZUZENKETA TEKNIKOA aurkezten dio, UOAREN 93. artikulua oinarri hartuta, idazkaritza orokorrak egindako ohartarazpenak kontuan izateko eta horiekin bat etortzeko:

**EH Bildu udal taldearen proposamenak honela dio:**

ALDATZEA jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren eranskineko **Ezartzeko Arauetan** honakoa GEHITUTA:

*Tasa % 5 handitzea merkataritza gunehandiei jabari publikoaren erabileragatik, Ordenantzaren eranskinean zehaztutako eta jarduerari dagozkion epigrafeei lotuta.*

**EH Bildu udal taldearen proposamenak honela adierazi behar du:**

ALDATZEA jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza, eranskinari honakoa GEHITUTA:

Tasa % 5 handitzea merkataritza gunehandiei<sup>1</sup> jabari publikoaren erabileragatik. Ordenantzaren eranskineko 2. puntuko b.2, b.3, b.4, b.5, b.6, b.7, b.8 eta b.11 epigrafeei eragiten die.

Donostian, 2022ko irailaren 1ean.

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

<sup>1</sup> 1.500 m<sup>2</sup> edo gorako merkataritza azalera (saltegi bakarrean edo hainbat saltegiaren azalera batuta).